
3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

ALDUNDIA - OGASUNA ETA FINANTZAK

Irailaren 30eko 750/1997 Foru Agindua, eragiketen aitorten ereduak ezartzekoa

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA Irailaren 30ko 750/1997 FORU AGINDUA, eragiketak aitortzeko erabili beharreko 510, 553, 554, 557, 558, 570, 580 eta E-55 ereduak eta asteen zehar luzatu nahiz jasotako agiri laguntzaileak zerrendatzeko 501 eta 502 ereduak, horiek guztiak Fabrikazio Zerga Berezienak, onartzen dituenak.

Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legeak 18. artikuluan 7. apartatuan dioenaren arabera, arauzko moduan ezarri beharra dago, besteak beste, nola kontrolatuko diren eta modu iraunkorrean nola interbenituko diren Fabrikazio Zerga Bereziei atxikitako produktuek fabrikatu, eraldatu, jaso, biltegitatu, komertzializatu eta bidaltzen dituzten establezimenduak.

Aipatu kontrola aurrera eramatearren, ezinbestekoa gertatzen da fabrika eta gordailu fiskaletan zerga bereziei atxikitako produktuekin egindako eragiketak aitortzeko ereduak onartzea eta ontzat ematea, halaber, luzatzen eta jasotzen diren agiri laguntzaileen aitorten ereduak, halaxe agintzen baitu uztailaren 7ko 1.165/1995 Errege Dekretuak, Zerga Berezien Erregelamendua onartzekoak, 29.1 eta 32. artikuluetan.

Kontuan izanik abuztuaren 4ko 38/1997 Legeak, Euskal Autonomia Elkartekeko Ekonomi Itunari buruzko maiatzaren 13ko 12/1981 Legea aldatu duenak, lurralde historikoen esku uzten duela zerga bereziak ordainarazi eta aitorten ereduak onartzea, beharrezko xedapenak eman beharra dago adierazitako kontrol tresnak onartzeko.

Hortaz, ondoko hau, XEDATU DUT:

1. artikulua. Ereduak onartzea.

Bat. Onarturik geratzen dira eragiketak aitortzeko erabili beharreko hurrengo ereduak, foru agindu honetan eraskin gisa azaltzen direnak, ondoko zerrenda honen arabera:

1. eraskina. 510 ereduak, Europako Batasuneko beste estatuetatik jasotako eragiketak aitortzekoa.

2. eraskina. 553 ereduak, ardo eta edari hartzituen fabrika eta gordailu fiskaletan egindako eragiketak aitortzekoa.

3. eraskina. 554 ereduak, alkohol fabrika eta gordailu fiskaletan egindako eragiketak aitortzekoa.

4. eraskina. 557 ereduak, edari deribatuen fabrika eta gordailu fiskaletan egindako eragiketak aitortzekoa.

5. eraskina. 558 ereduak, garagardo fabrika eta gordailu fiskaletan egindako eragiketak aitortzekoa.

6. eraskina. 570 ereduak, hidrokarburo fabrika eta gordailu fiskaletan egindako eragiketak aitortzekoa.

7. eraskina. 580 eredia, tabako laboreen fabrika eta gordailu fiskaletan egindako eragiketak aitortzekoa.

8. eraskina. E-55 eredia, tarteko produktuen fabrika eta gordailu fiskaletan egindako eragiketak aitortzekoa.

Bi. Onarturik geratzen dira, oro bat, fabrikazio zerga bereziei lotuta luzatu eta jasotako agiri laguntzaileak aitortzeko ereduak, foru agindu honetan eraskin gisa azaltzen direnak, honako zerrenda honen arabera:

9. eraskina. 501 eredia, astean zehar luzatutako agiri laguntzaileak zerrendatzekoa.

10. eraskina. 502 eredia, elkarte barruko eragiketen bidez astean zehar jasotako agiri laguntzaileak zerrendatzekoa.

Hiru. Aurreko bi apartatuetan adierazitako ereduak bina ale dituzte:

Administrazioarentzako alea.

Sujetu pasiboarentzako alea.

Lau. 553, 554, 557, 558, 570, 580 eta E-55 ereduak fabrika eta gordailu fiskalei dagozkien aitortenarako erabiliko dira soil-soilik.

Operadore erregistratuek, erregistratu gabeek, ordezkari fiskalek eta hartzaile ez baimenduek egiten dituzten aitortenetan elkarte barruko zirkulazioan jaso dituzten produktuen mugimenduak baino ez dira azalduko. Horretarako, 510 eredia erabiliko dute jasotako produktuei eragiten dien Zerga Berezia edozein dela ere.

2. artikulua. Eragiketen aitortenak aurkeztea.

Sujetu pasiboek aurreko artikuluko lehen apartatuan onartutako erduei jarraituz aurkeztu beharko dituzte hilabete edo hiruhileko natural bakoitzean, dagokionaren arabera, egindako eragiketen aitortenak, baita izakinak bakarrik dituztenean ere.

3. artikulua. Agiri laguntzaileen zerrenda.

Bat. Agiri laguntzaileak luzatzen dituztenek 501 eredia erabiliko dute, hau da, aste bakoitzean zehar luzatutako agiriak zerrendatzen dituena.

Bi. Elkarte barruko beste estatu batetik iritsi eta fabrikazio zerga bereziei atxikita dauden produktuak suspentsio erregimenean jasotzen dituztenek agiri laguntzailearen 2., 3. eta 4. aleak aurkeztu dituzte produktua noiz eta non jaso duten bertan adierazi eta gero. Hartu izana ere izenpetuko dute, adostasuna espreski adieraziz edo aldeak agerian utziz agirian adierazitako produktuen eta benetan jasotakoen artean diferentziak egon badira haien motan edo kantitatean. Ale horiek astean zehar jasotako agiriak laburbiltzen dituen 502 ereduarekin batera aurkeztuko dira.

4. artikulua. Aurkezteko epea.

Bat. Eragiketei buruzko 510, 553, 554, 557, 558, 570, 580 eta E-55 aitorten ereduak sortzapenak gertatu diren hilabetea amaitu eta bigarren hilabeteko lehen bost lanegunen barruan aurkeztuko dituzte sujetu pasiboek edo, hala badagokio, sortzapenak gertatu diren hiruhilekoa amaitu eta bigarren hilabeteko lehen bost egunen barruan.

Bi. 501 eredia bertan aipatzen diren datuei erreferentzia egiten dien astea amaitu eta hurrengoan aurkeztuko da.

Hiru. 502 eredia produktuak jasotzen diren astea amaitu eta hurrengoan aurkeztuko da.

5. artikulua. Non aurkeztu.

Foru agindu honetan onartu diren eredu guztiak Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan aurkeztuko dira.

Amaierako Xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean.

Donostia, 1997ko irailak 30. Antton Marquet Artola, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru Diputatuak. (11780)(9398)